



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERAREN GAINEKOA, 2018/08/17KOA

Abuztuaren lehengo egunetatik aurrera tenperatura altuak izan dira eta eguraldia lehorra izan da, ez baita ekaitzik egon Errioxan, eta ingurumen egoera hori ezin hobea da mahastia garatzeko eta gaitz kriptogamikoek eusteko, kanpaina honetan bereziki oldarkorrak izaten ari baitira nola Arabako Errioxan hala Arabako Txakolinaren eremuan.

Mahastiaren osasunari begiratzuz gero, behar bezala dago oro har, eta aurreikusitako etekinak altuak dira, salbu eta lurzati oso jakin batzuetan, non uzta murriztagoa izango baita kazkabarragatik edo tratamenduak behar bezala eta behar zen unean ezin egin izanagatik. Egun hauetan, Arabako mahastiei mildiuren eta oidioaren aurkako aurtengo azkeneko tratamendua ematen ari zaie, baldin eta eguraldiak abuztuko berezkoa izaten jarraitzen baldin badu.

Orain, mahastia kolorez aldatzen ari den unean (M2 egoera fenologikoa, kolore aldaketa betea), aldi gakoan gaude uzta arrakastatsua izan dadin bai kantitatean bai kalitatean. Oro har, baldin eta aldi honetan baldintzak egokiak badira, oidioa edo mildiua bezalako gaitzek ez dute honezkero kalte handirik eragingo. Kolore aldaketatik aurrera, gelditu egiten da garapen begetatiboa eta landareak heltze prozesuan jartzen du indarririk handiena. Edonola ere, aurten arazo gehiago dago beste urte batzuetan baino: baiak zaurituta daude (harriabarra, gaitz kriptogamikoak) eta horrek eragin dezake mahastia kalteberagoa izatea botritisarekiko; hortaz, gaitz horren aurkako prebentzio tratamenduak ohi baino arreta handiagoarekin egin behar dira arazoak saihesteko.

Arabako Txakolinean, nahiz eta ohituta dauden mildiura, aurten agerraldia bortitzagoa eta luzeagoa izan da, baina esan daiteke, Errioxan bezala, oraingo osasun egoera kontrolatua dagoela eta uztarako aurreikuspenak optimistak direla.

Joan den kanpainaz bestela, ziklo begetatiboaren aurrerapena ohi kanpokoan izan baitzen, aurten ohiko daten barruan gaude edo ohiko datak baino zertxobait atzeratuta gabilta. Arabako Errioxako uzta goiztiarrena, barietate zuriena, ez da hasiko irailera arte, eta seguruenik ez dira bilduko barietate beltzen lehenengo mahats aleak urrira arte.

Guardia, 2018ko abuztuaren 17a.
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua